

## RENCONTRES DE TRANSPORTS PUBLICS 2017 Marseille urriak 10-12

### Irizar e-mobility teknologia eta markako zero igorpeneko autobus gama berriaren aurkezpena primizian

Irizar erreferente da munduan autobusen eta autokarren fabrikazioan eta aurren Rencontres de Transports Publics-en izango da Marseillan urriaren 10 eta 12 artean 300m<sup>2</sup>-ko standarekin. Sortu berri den Irizar e-mobilityren etorkizuneko estrategiaren berri emango da eta zero igorpeneko autobus %100 elektrikoen gama berria aurkeztuko da.

Irizar e-mobilityk taldeko enpresa guztien ezagutza eta esperientzia batzen ditu hirietarako mugikortasun irtenbide osoak sortzeko: Autobus %100 elektrikoak eta azpiegitura sistema nagusiak kargarako, trakziorako eta energia biltegitatzeko. Guztiak Taldearen teknologia %100 europarrarekin diseinatu eta fabrikatuak eta Irizarren zerbitzuaren berme eta kalitatearekin.

Erakutsiko diren produktu sorta osatzen dute **Irizar ie bus**-ek (Irizar electric bus), 12m-ko hiriko autobusa, eta **Irizar ie tram**-ek (Irizar electric tram), 18 metroko autobus artikulatua tram bertsioan, biak %100 elektrikoak zero igorpenekin eta Irizarrek lehen aldiz aurkeztuko duen pantografo bidezko karga sistemarekin.

**Irizar ie bus** 12 metroko autobus elektrikoa da, ate bikoitzarekin eta barruan 29 plaza ditu eserita, 47 zutik eta bi espazio MUPentzat.

**Irizar ie tram** Irizar Taldeak merkatuan ofizialki aurkeztuko duen lehen autobus artikulatu %100 elektrikoa da. 18,73 metro luze da, 4 ate ditu eta 155 bidaiari sar daitezke, MUP 1 eta umeentzako aulki 1.

Diseinu moderno, dotore eta aerodinamikoa du eta kontzeptualki autobus hau gertuago dago tranbia batetik. Mugikortasun malgu eta iraunkorra eskaintzen du, munduko edozein azpiegitura eta hiritan ederki txertatzeko gaitasuna du eta diseinu moderno, garraio eraginkorra eta segurua eta luxuzko erosotasuna ematen ditu.

Ahalmen handiko ibilgailu integrala Taldeak garatu du oso-osorik, eta merkatuan liderra izatera deituta dago, errentagarria, segurua eta fidagarria baita.



Gainera, Irizar pantografoa ere aurkeztuko da, Irizar teknologiarekin garatutako karga azkarrerako sistema.

Irizar Taldearen asmoa da garraio garbi eta irisgarrien erabilera bultzatzea, ingurumen, ongizate eta pertsonen osasunaren alde egiten baitute, hiri ingurune hobek sortzeko. Kutsadura akustikoa murriztearen alde egiten du, kostuak gutxituko dituzten kontsumo baxuen alde eta zero isurpeneko ibilgailuen alde.

Irizarrek bere ildo estrategikoak erakusten ditu horrela, eta bezeroekin eta gizartearekin duen konpromiso sendoa. Izan ere, bezeroei eta gizarteari balio erantsi handia eskaintzen die produktu eta zerbitzuei dagokionez, baina diseinua, pertsonalizazioa, segurtasuna, fidagarritasuna eta iraunkortasuna bezalako gai garrantzitsuak ahaztu gabe.

Berritasun hauen guztien **PREMIEREA FRANTZIARAKO Irizar e-mobilityren 41. standean egingo da urriaren 10ean 12:00etan.**